***Hezkuntza Departamentuak kudeatzen dituen programen kontura emango diren diru laguntzen oinarri arautzaileak.***

**.- Zioen azalpena**

Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluak dio heziketarako eskubidea oinarrizko eskubidea dela. 2006/2 Lege Organikoak eskubide hori garatzen du eta zehatz hamabosgarren xedapen gehigarrian gai honetan Udalek dituzten eskumenak zehazten ditu.

2/2016 Euskadiko Toki Entitateen Legeak 17.1.23 artikuluan udalerrien eskumen propio gisa arautzen du, besteren artean, ikasketen programazioan parte hartzea.

Toki Araubideko Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 72. Artikuluak dio Toki Korporazioek beraien herritarren interes orokorreko edo sektorialeko defentsarako elkarteen garapena sustatu behar dutela eta, duten aukeren barruan, bitarteko publikoen erabilera eta beraien jardueren garapenerako diru-laguntzen lorpena.

Jarduera akademikotik kanpoko jardun hezitzailea sustatzeko helburuarekin, ikastetxeek eta guraso elkarteek urtean zehar egiten dituzten egitasmoak finantzatzen ditu Oñatiko Udalak. Ildo horretan, jarduera horien finantzazioa Diru-laguntzen Legera egokitzeko asmoz (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) oinarri arautzaile hauek onestea proposatzen du:

**1. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.**

1. Diru-laguntza hauen onuradun izaera izango du diru laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoak edo juridikoak, edota diru laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.
2. Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen onuradun ezin dute izan azaroaren 17ko diru

***Bases reguladoras de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por el Departamento de Educación.***

**.- Exposición de motivos**

El artículo 27 de la Constitución Española define el derecho a la educación como un derecho fundamental. La Ley Orgánica 2/2006 desarrolla este derecho y en concreto en su disposición adicional decimoquinta determina las competencias de los Ayuntamientos en esta materia.

La Ley 2/2016 de Entidades Locales de Euskadi, en su artículo 17.1.23, regula como competencia propia de los municipios, entre otras, la participación en la programación de los estudios.

72 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local. El artículo señala que las Corporaciones Locales deben promover el desarrollo de las asociaciones de defensa del interés general o sectorial de sus ciudadanos y ciudadanas y, dentro de sus posibilidades, la utilización de medios públicos y la obtención de subvenciones para el desarrollo de sus actividades.

Con el objetivo de fomentar la actividad educativa fuera de la actividad académica, el Ayuntamiento de Oñati financia los proyectos que los centros educativos y las asociaciones de padres y madres llevan a cabo a lo largo del año. En este sentido, con el fin de adecuar la financiación de estas actividades a la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, propone la aprobación de las siguientes bases reguladoras:

**1. Requisitos para solicitar la subvención.**

1. Tendrá la condición de persona beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que haya de realizar la actividad que fundamenta la concesión de la subvención o que se encuentre en la situación que fundamente su concesión. Dicha persona deberá cumplir, además, los requisitos específicos que para cada línea subvencional se establecen en el anexo correspondiente.

laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean diren pertsona edo erakundeek, ezta ere sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenek ere.
3. Onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez egoteari buruzko egiaztapena egin dezakete pertsonek edo erakundeek lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez, kasuen arabera, eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, ordeztu daitezke herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako aitorpenaren bitartez.

2. Quedan excluidas, como beneficiarias de las subvenciones reguladas en estas bases, las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, así como las incursas en prohibición legal que inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo.
3. La acreditación por las personas o entidades de no estar incursos en prohibiciones para obtener la condición de beneficiario podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación, según los casos, y cuando no sea posible su obtención, podrá sustituirse por declaración ante una Administración Pública o notario.

Diru-laguntza eskaerekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ordezten ahalko dira, interesatuek berariaz hartarako baimena emana duten kasuetan, ziurtagiri horiek emateko eskumena duten entitateek diru-laguntza kudeatzeko erantzukizuna duen organoari behar diren datuak zuzenean emanda.

Las certificaciones tributarias o de Seguridad Social a presentar junto con las solicitudes de subvención podrán ser sustituidas, siempre que exista autorización expresa de los interesados, por la aportación directa de los datos necesarios al órgano responsable de la gestión de la subvención por parte de las entidades competentes para su emisión.

Entitate juridikorik ez duen talderen batek, hezkuntza jardueraren bat antolatu edo bultzatzen badu, Udalari laguntza eskatu ahal izateko legezko lau ordezkari izendatu beharko ditu gehienez; horiek izango dira ondorio guztietarako taldearen ordezkariak, arduradunak eta jardueraren erantzuleak Udalaren aurrean. Orobat, 38/2003 Legearen 13. artikuluan xedatutakoak bete beharko dituzte.

Cuando algún grupo sin entidad jurídica organice o promueva alguna actividad educativa, para poder solicitar la ayuda al Ayuntamiento deberá designar un máximo de cuatro representantes legales, que serán a todos los efectos los representantes del grupo, los responsables y los responsables de la actividad ante el Ayuntamiento. Asimismo, deberán cumplir con lo dispuesto en el artículo 13 de la Ley 38/2003.

## 2.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira jarduera diruz laguntzekoaren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin daitezke inoiz merkatuko balioa baino handiagoak izan.

2. Diru laguntzen onuradunak loturik gelditzen dira onartzen zaien gastu diruz lagungarriari, diru

## 2.- Gastos subvencionables

1.- A los efectos de estas bases, se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las bases reguladoras específicas. En ningún caso los costes de adquisición de los elementos objeto de subvención podrán superar el valor de mercado.

2. Los beneficiarios de las subvenciones quedan afectos al gasto subvencionable que les sea reconocido, debiendo justificar la totalidad del

laguntza jasoz gero gastu diruz lagungarriaren zenbatekoa osorik justifikatu beharko baitute.

importe del gasto subvencionable en el caso de ser subvencionado.

**3.- Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.**

**3.- Lugar y documentación para la presentación de solicitudes.**

Eskariak Oñatiko **Udaleko Erregistro elektronikoan** aurkeztu daitezke, telematikoki, nahiz HAZ zerbitzuan. Eskariak Hezkuntza Departamenduan tramitatuko dira.

Las solicitudes se pueden presentar en el Registro electrónico del Ayuntamiento de Oñati, tanto telemáticamente como en el SAC. Las solicitudes se tramitarán en el Departamento de Educación.

**4.- Aurkeztu beharreko agiriak.**

1. Diru laguntzak eskatzeko formulario normalizatua eta oinarri espezifikoetan eskatzen den dokumentazio osagarriaz gain, dokumentazio hau aurkeztu behar da nahitaez:

– Zerga betebeharrak (Ogasuna eta Udal Zerga Biltegia) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiriak, Udalari hori egiaztatzeko baimena ukatu baldin bazaio edo Nisae nodoaren -euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa-elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan kontsulta egin ezin bada.

2. Oñatiko Udalak, Nisae nodoaren bidez -euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa-, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, dirulaguntza hauen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

**4.- Documentación a presentar.**

1.- Además del formulario normalizado de solicitud de subvención y de la documentación complementaria exigida en las bases específicas, será preceptiva la siguiente documentación:

– Certificados de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda y Repositorio Fiscal Municipal) y con la Seguridad Social, cuando se haya denegado la autorización al Ayuntamiento para su acreditación o no sea posible consultar el catálogo de servicios de interoperabilidad del nodo Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones vascas.

2.- El Ayuntamiento de Oñati, a través del nodo Nisae, nodo para la seguridad e interoperabilidad de las administraciones de Euskadi, realizará las comprobaciones y consultas necesarias sobre los datos puestos a disposición de la Administración por parte de los intes disponibles. Asimismo, realizará las comprobaciones necesarias para la tramitación administrativa de estas ayudas. Cesará la petición de datos interoperables por este motivo, salvo que el interesado se oponga a su utilización, en cuyo caso deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administraziori emandakoak.

La base de la intermediación de datos entre Administraciones Públicas viene determinada por el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, que reconoce el derecho de los ciudadanos a no presentar documentos elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa aplicable o que hayan sido aportados previamente por el interesado a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote

Asimismo, el artículo 155 de la Ley 40/2015 señala que las administraciones deben colaborar en el intercambio de datos y facilitar los datos relativos a la ciudadanía que obren en

datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

3. Horren haritik, Oñatiko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako diru-laguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez.

– Gipuzkoako Foru Aldundia: zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

– Estatuaren Administrazio Orokorra. Gizarte Segurantzaren. Diruzaintza Nagusia (GSDN): GSDNarekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

4. Oñatiko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko bete-beharrak betetzen direla.

5. Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistro Nagusiaren bidez egiaztatuko ditu ondorengo ziurtagiri publikoak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dagoelako egiaztagiria.

– Eskaera egiten duen erakundearen estatutuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta ez dauden erakundeek estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

Aipatu egiaztagiriak baliodunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetan. Diru laguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztagiria eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, organo emaileak zuzenean eskuratuko du ziurtagiri berria edo baimena eman ez duten entitate onuradunek berriro aurkeztu beharko dituzte egunean daudelako egiaztagiriak.

6. Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio entitate eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

su poder.

3.- En este sentido, el Ayuntamiento de Oñati acreditará, a través de los servicios de plataforma de intermediación de Nisae, datos y otras administraciones, los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones objeto de esta convocatoria:

– Diputación Foral de Gipuzkoa: estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias.

– La Administración General del Estado. Seguridad Social. Tesorería General (TGSS): consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con la TGSS.

4.-El cumplimiento de las obligaciones municipales se verificará de oficio por el Ayuntamiento de Oñati.

5.-Acreditará a través del Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco los siguientes certificados públicos:

– Certificado de inscripción en el Registro General de Asociaciones del País Vasco.

– Estatutos de la entidad solicitante.

Las entidades que no estén inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco deberán presentar sus estatutos.

Dichos certificados serán válidos dentro de los seis meses siguientes a la fecha de su expedición. Si en el momento de hacer efectivo el abono de la subvención, hubieran transcurrido seis meses desde la fecha de concesión de la certificación, se obtendrá directamente por el órgano concedente el nuevo certificado o, en su caso, se deberá volver a presentar por parte de las entidades beneficiarias no autorizadas la documentación acreditativa de estar al corriente.

6.- Cuando no sea posible la consulta a través de plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, excepcionalmente se podrá requerir a la entidad solicitante la presentación de dicha documentación.

Eskariak aurkezteak, deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla esan nahi du.

La presentación de solicitudes supone la aceptación de todas las condiciones recogidas en la presente convocatoria.

## 5. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskatzaileek diru-laguntza eskabidea aurkezteko, hilabeteko epea izango dute, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

## 5. Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo para la presentación de la solicitud de subvención será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Eskatutako dokumenturen bat dagoeneko Oñatiko Udalaren organoren batek bere esku edukiko balu, diru-laguntzaren eskatzaileak, aukeran, heldu ahal izango dio 39/2015 Legearen 58.1.d eta 28.3 ataletan ezarritakoari. Horretarako, eskatzaileak adierazi egin beharko du noiz eta zein sailean aurkeztuak edo emanak izan ziren dokumentuok, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro zegokien prozedura amaitu zenetik.

En el supuesto de que alguno de los órganos del Ayuntamiento de Oñati dispusiera ya de la documentación requerida, el solicitante de la subvención podrá optar por acogerse a lo establecido en los artículos 58.1.d y 28.3 de la Ley 39/2015. A estos efectos, la persona solicitante deberá indicar en qué momento y en qué departamento se presentaron o emitieron los documentos y si no hubieran transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento.

Eskabideak edo dokumentazio lagungarriak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko. Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere 39/2015 Legearen 93 eta 94 artikuluetan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

Si las solicitudes o la documentación de apoyo adolecieran de defectos o fueran incompletas, se requerirá a los interesados para que en el plazo de diez días subsanen los defectos observados. Si transcurrido dicho plazo no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en los artículos 93 y 94 de la Ley 39/2015.

Eskaerak aurkezteko epea pasata Udal hezkuntza batzordeak hezkuntza ekintzaren bat antolatzeko proposamena jasotzen badu, jarduera horri egoki deritzon diru-laguntza eman ahal izango dio, hala erabakiz gero.

Si transcurrido el plazo de presentación de solicitudes, la Comisión Educativa Municipal recibiera una propuesta de organización de alguna acción educativa, ésta podrá concederle la subvención que considere oportuna, si así lo decide.

**6. Emateko prozedura.**

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira. Ondorioz, kasu bakoitzean ezarritako balorazio irizpideen arabera, diruz lagundu nahi diren jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko eskaera kopurua hautatuko da.

**6. Procedimiento de concesión.**

Estas ayudas se concederán por el procedimiento de competitividad mutua. En consecuencia, en función de los criterios de valoración establecidos en cada caso, se seleccionará un número de solicitudes que asegure la calidad y viabilidad de las actividades objeto de subvención.

**7. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.**

1. Oinarri orokor hauekin batera doazen A (ikastetxeen jarduna) B (Guraso elkarteen jarduna) jarduera lerro bakoitzeko berariazko oinarri arautzaileek diruz lagundutako jardueraren finantzaketa propioaren zenbateko bat eska dezakete. Diruz lagundutako jarduerarako ekarpen propioa kreditatu beharko da jardueran izandako gainerako gastuen gisa berean.
2. Diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan besterik xedatzen ez bada, oinarri hauetan jasotzen diren diru laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz

**7. Financiar las actividades subvencionadas.**

1. Las bases reguladoras específicas de cada línea de actuación A (actuación de los centros educativos) B (actuación de las asociaciones de padres y madres) que acompañan a estas bases generales podrán exigir una cuantía de financiación propia de la actividad subvencionada. Deberá acreditarse su aportación propia a la actividad subvencionada en los mismos términos que el resto de gastos incurridos en la misma.
2. Salvo que se disponga otra cosa en las bases reguladoras específicas de cada línea de subvención, las subvenciones que se recogen en estas bases serán compatibles con otras ayudas,

pribatuek, Estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.
3. Dirulaguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru laguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagokoa izan.

subvenciones, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones públicas o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.
3. El importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el coste de la actividad a desarrollar.

**8. Dirulaguntzen zenbatekoa.**

Dirulaguntzen zenbatekoak diru laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarri arautzaileetan aipatzen dena izango da.

**8. Cuantía de las subvenciones.**

La cuantía de las subvenciones será la que se consigne en las bases reguladoras específicas de cada línea subvencional.

**9. Izapidea.**

1. Dirulaguntzak emateko prozedura izapidetzea Hezkuntza departamentuaren eginkizuna da, eta hari dagokio behar diren ekintza guztiak burutzea ebazpen proposamena gauzatzeko beharrezkoak diren datuak zehaztu, eskuratu eta egiaztatzeko.

2. Izapidetze fasea hasiko da eskaera bakoitzaz Hezkuntza Departamentuak egingo duen aurre ebaluazioaz, hori da, eskatzaileak diru laguntzaren onuradun izaera eskuratzeko ezarririk dauden baldintza guztiak betetzen dituela eta aurkeztutako dokumentazioa osatua eta egokia dela egiaztatzea.

3. Hezkuntza Batzordeburuak bere zerbitzuari atxikitako teknikari bat izendatuko du diru laguntza mota bakoitzean aurkeztutako eskaeren balorazio txostena egin dezan, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarri arautzaileetan beste administrazio organoren baten txostena behar dela ezartzen ez bada.
4. Eskaerak ebaluatu ondoren, Hezkuntza Batzordeak ebazpen proposamena osatuko du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskumendunari aurkeztuko dio ebazpena eman dezan.

**9. Trámite.**

1. Corresponde al Departamento de Educación la tramitación del procedimiento de concesión de las subvenciones, así como la realización de cuantas acciones sean precisas para la determinación, obtención y verificación de los datos necesarios para llevar a cabo la propuesta de resolución.
2. La fase de tramitación comenzará con la evaluación previa que respecto de cada solicitud realizará el Departamento de Educación, es decir, comprobar que la persona solicitante cumple todos los requisitos establecidos para acceder a la condición de beneficiaria de la subvención y que la documentación presentada es completa y adecuada.
3. El Presidente de la Comisión de Educación designará un técnico adscrito a su servicio para que emita el informe de valoración de las solicitudes presentadas en cada tipo de subvención, salvo que en las bases reguladoras específicas de los anexos que acompañan a las presentes bases generales se establezca la necesidad de informe de otro órgano administrativo.
4. Una vez evaluadas las solicitudes, la Comisión de Educación elaborará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que elevará al órgano competente para su resolución.

**10. Aurkeztutako eskaeren akatsak zuzendu.**

Aurkeztutako eskaerak akatsak izanez gero, eskatzaileari jakinaraziko zaio eta 10 eguneko epean zuzendu beharko ditu. Hori egin ezean,

**10. Subsanación de defectos en las solicitudes presentadas.**

Si la solicitud presentada adoleciera de defectos, se comunicará al solicitante y deberá subsanarlos

eskaera aurkeztu duenak atzera egin duela ulertuko da.

en el plazo de 10 días. De no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su petición.

**11. Erabakitzeko eta jakinarazteko epea**

**11. Plazo para resolver y notificar**

Prozedura aztertzeko, ebazteko eta jakinarazteko epea gehienez ere hiru hilabetekoa izango da. Epea kalkulatzeko, deialdia argitaratzen den eguna hartuko da kontuan.

El plazo máximo para el conocimiento, resolución y notificación del procedimiento será de tres meses. Para el cálculo del plazo se tendrá en cuenta la fecha de publicación de la convocatoria.

Prozeduraren instrukzioa egin ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretxoan, 39/2015 Legearen 82 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, entzunaldiaren tramitea beteko da, salbu eta soilik interesdunek emandako egintzak, probak eta alegazioak baino ez badira kontuan hartzen edo agertzen prozeduran.

Una vez instruido el procedimiento y inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, de conformidad con lo previsto en el artículo 82 de la Ley 39/2015, se procederá al cumplimiento del trámite de audiencia, salvo que únicamente se tomen en consideración o se personen en el procedimiento los actos, pruebas y alegaciones dictados por los interesados.

Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du. Dirulaguntzen onuradunen onarpena Tokiko Gobernu Batzarrak eman beharko du.

La resolución pone fin a la vía administrativa. La aceptación de los beneficiarios de las subvenciones corresponderá a la Junta de Gobierno Local.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (https://www.xn--oati-gqa.eus/eu) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

De conformidad con lo establecido en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria se publicará de forma sucinta en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Dicha publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada y tendrá efectos legales desde el día siguiente al de la publicación de la resolución. Los interesados podrán consultar el contenido íntegro de la resolución en la página web del Ayuntamiento de Oñati (https://www.xn--oati-gqa.eus/es).

**12. Onuradunen betebeharrak**

**12. Obligaciones de los beneficiarios**

Dirulaguntzen onuradunek honako bete beharrak bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntza emateko oinarrian den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edota jokabidea aintzat hartzea.
b) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean egiaztatzea baldintzak betetzen dituela, eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela.

Los beneficiarios de las subvenciones deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Realizar el proyecto, realizar la actividad o valorar la conducta que fundamente la concesión de la subvención.
b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad o el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

d) Udalean jakinaraztea edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik jaso direla xede bereko dirulaguntzak diru-sarrerak edo baliabideak.

e) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri Udalari jakinarazi beharko dio,

f) Publizitate beharkizunak betetzea. Diru laguntzaren xedeko jarduerei buruzko publizitatean Oñatiko Udalaren lankidetza adieraziko da, une horretan erakundeak erabakita duen irudi korporatiboa errespetatuz.

g) Diruz lagundutako jarduera guztietan betetzea 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legeak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, xedatutakoa, eta oro har, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko moduan jokatzea.

h) 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea bere jardueretan, bereziki hurrengo alderdiei dagokienez: Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista, eta generoaren adierazleak txertatzea diruz lagundutako jardueraren ebaluazio irizpideetan.

i) Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratu eta haien xedapenak betetzea.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan efectuar los órganos de control competentes, facilitando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las anteriores funciones.

d) Comunicar al Ayuntamiento la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

e) Comunicar al Ayuntamiento la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

f) Cumplir con los requisitos de publicidad. En la publicidad de las actividades objeto de subvención se hará constar la colaboración del Ayuntamiento de Oñati, respetando la imagen corporativa que en ese momento tenga decidida la entidad.

g) Cumplir en todas las actividades subvencionadas lo dispuesto en la Ley 10/82, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera, y en general garantizar los derechos lingüísticos de los vascohablantes.

h) Cumplir en sus actuaciones los principios generales establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, especialmente en lo relativo al Uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, así como la incorporación de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

i) Obtener las autorizaciones y cumplir las disposiciones que sean necesarias para la realización de la actividad subvencionada.

**13.- Dirulaguntza kentzea eta itzultzea**

Jarraian zerrendatuko diren kasuetan, itzuli egin beharko dira emandako diruak; baita dirulaguntza ordaindu zen unetik itzultzea erabaki den unea arteko berandutze-interesak ere.

a. Jasotako diruari emandako erabilera, garaiz eta behar den moduan, ez justifikatzea.

b. Dirulaguntza ukatu egingo da, eskatutako dokumentazio guztia aurkezten ez bada. Era

**13.- Retirada y reintegro de la subvención**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los siguientes supuestos:

a. No justificar en tiempo y forma la aplicación dada a los fondos percibidos.

b. Se denegará la subvención si no se aporta toda la documentación requerida. Asimismo, la

berean, datuak ezkutatzen edo faltsutzen badira, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da.
c. Dirulaguntzak ematean, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
d. Dirulaguntzaren helburua, guztiz edo zati batean, ez betetzea.
e. Kontrol-erakundeei beren jardueran eragoztea edo oztopatzea

ocultación o falseamiento de datos dará lugar a la pérdida del derecho a la subvención.
c. El incumplimiento de las condiciones impuestas a los beneficiarios en la concesión de las subvenciones.
d. Incumplimiento total o parcial de la finalidad para la que la subvención fue concedida.
e. La obstrucción u obstrucción a la actuación de los organismos de control

Kudeaketa, inspekzioa eta kontrola egiteko garaian diru-laguntza modu desegokian jasoa edo erabilia izan delako zantzuak agertuz gero, espediente bat irekiko da horren berri emateko, eta beharrezko diren kautelazko neurriak hartuko dira.

Si en el curso de la gestión, inspección y control se observaran indicios de uso indebido de la subvención, se procederá a la apertura de expediente en el que se tomarán las medidas cautelares oportunas.

**14. Ordainketa erak eta epeak.**

Arau orokor gisa, oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak era honetan ordainduko dira, eta dirulaguntza bakoitzaren eranskinean bestelakorik xedatzen ez bada: Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60 ebazpena eman eta handik 15 egunera eta gainontzeko % 40 urteko memoria aurkeztu eta onartu ondoren. Likidazioa Tokiko Gobernu Batzarrak onartu beharko du.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdiaren ebazpena laburtuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (https://www.xn--oati-gqa.eus/eu) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

**14. Formas y plazos de pago.**

El pago de las subvenciones reguladas en las presentes bases se efectuará, con carácter general, de la siguiente manera, y salvo que en el anexo correspondiente se disponga otra cosa: el 60% de las subvenciones concedidas con cargo a este Programa se hará efectivo en dos pagos, a los 15 días de haberse dictado la resolución y el 40% restante previa presentación y aprobación de la memoria anual. La liquidación deberá ser aprobada por la Junta de Gobierno Local.

De conformidad con lo establecido en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria se publicará de forma sucinta en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Dicha publicación sustituirá a la notificación individual, que se entenderá practicada y tendrá efectos legales desde el día siguiente al de la publicación de la resolución. Los interesados podrán consultar el contenido íntegro de la resolución en la página web del Ayuntamiento de Oñati (https://www.xn--oati-gqa.eus/es).

**15. Interpretazioa.**

Oinarri hauen interpretazioan eta garapenean sor daitezkeen gorabeherak alkateak erabakiko ditu, Hezkuntza batzordearen proposamena entzun ondoren.

**15. Interpretación.**

Las incidencias que puedan surgir en la interpretación y desarrollo de estas bases serán resueltas por el Alcalde a propuesta de la Comisión de Educación.

**16. Araubide juridikoa.**

Oinarri hauetan arautu gabekoei, lege eta arautegi hauek ezarriko zaizkie:

.- 39/2015 Legea Herri Administrazioen Administrazio Prozedura.
.- 38/2003 Legea, dirulaguntzei buruzkoa, eta 887/2006 Errege dekretua, lege horren arautegia onartzen duena.
.- Oñatiko Udalak dirulaguntzak arautzeko duen Ordenantza Nagusia (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2009ko martxoaren 23koa, 54. zk.).
.- 2023-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa: 2022ko urriaren 13ko alkate dekretu bidez onartua (1104 zenbakia).

**16. Régimen jurídico.**

En lo no previsto en estas bases serán de aplicación las siguientes leyes y reglamentos:

.- Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo de las Administraciones Públicas.
.- Ley 38/2003, General de Subvenciones y Real Decreto 887/2006, por el que se aprueba su Reglamento.
.- Ordenanza General reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Oñati (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 54, de 23 de marzo de 2009).
.- Plan Estratégico de Subvenciones 2023-2026, aprobado por Decreto de Alcaldía nº 1104, de 13 de octubre de 2022.

**A DIRULAGUNTZA LERROA**

**OINARRI ESPEZIFIKOAK Arlo akademikotik kanpo IKASTETXEEK proiektu hezitzaileak gauzatzeko dirulaguntzak emateko.**

**LÍNEA DE SUBVENCIÓN A**

**BASES ESPECÍFICAS para la concesión de subvenciones para la realización de proyectos educativos por parte de CENTROS EDUCATIVOS fuera del ámbito académico.**

**1. Xedea**

Oinarri arautzaile hauen xedea da norgehiagoka erregimenean ematen diren dirulaguntzak arautzea. ikasturtean zehar Oñatiko ikastetxeen arlo akademikoaz kanpoko aktibitateak sustatu eta urteko programen garapena finantzatzeko

Ikastetxeek edo ikasleek jarduera akademikotik kanpo arlo hauetan egindako sustapen proiektu hezitzaileak garatzea lagunduko da diruz: hezkuntza, kultura, euskararen erabilera sustatzeko ekimenak eta ikasleen aisialdirako programak. Horretarako, honako baldintza hauek bete behar dituzte interesa duten erakundeek: Udalak edo haren erakunde autonomoak egiten dituzten ekimenen osagarri izatea edo haiek ordezkatzea, edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak izatea, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

**1. Objeto**

Es objeto de las presentes bases reguladoras regular la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia competitiva para la promoción de actividades ajenas al ámbito académico de los centros docentes de Oñati durante el curso escolar y la financiación del desarrollo de programas anuales.

